

Bertsolaritza landu da Gorbeialdeko lau ikastetxetan

Arabako Bertsozale Elkartearen eskutik, Gorbeialdeko lau ikastetxetan (Garazi ikastola, Izarra herri eskola, San Martin eskola eta Oroko Andra Mari ikastetxea) GU ERE BERTSOLARI programa landu dugu.

Iñaki Viñaspre etorri da gure geletara kurtso osoan zehar eta bertsolaritzaren lanketa jarraia burutu dugu.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculuma" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: MUSIKA, KULTURA, HITZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.



Gorbeialdeko bertso-eskolak

Bertso eskola zure zain dago!

ARAMAIO

GAZTEEN TALDEA (16-17 urte):
Ostegunetan. Orduetgia: 18:30-19:30. Irakasle: Lierni Altuna eta Xabi Igoa

GAZTETXOEN TALDEA (12-14 urte):
Ostiraletan. Orduetgia: 18:30-19:30. Irakasle: Garazi Eriz

HAUREN TALDEA (8-11 urte):
Astearteetan. Orduetgia: 16:00-17:00. Irakasle: Garazi Eriz.

LEGUTIO

GAZTETXOEN TALDEA (10-13 urte):
Ostiraletan. Orduetgia: 16:45-17:45. Irakasle: Elyem Chej

URKABUSTAIZ

HELDUEN TALDEA: Izarran,
ostiraletan. Orduetgia: 19:00-21:00. Irakasle: Unai Mendibil

GAZTEEN TALDEA: Izarran,
asteleheneetan. Orduetgia: 19:30-21:00. Irakasle: Iñaki Viñaspre



Ikastetxeen arteko topaketa

Urtero egin ohi dugun bezala, aurten ere elkartu ginen gelan egindako lana elkarri erakusteko. Otsailaren 15a izan zen aukeratutako eguna. Ikaspilotako topaketa aitzakia hartuta, eta behin goizean gorputza mugitu ostean, Izarra herri eskolako polikiroldegian elkartu ginen.

Gela bakoitzak egun horretarako prestatutako abestia eta bertsoak bota genituen (asmakizunak, futbolariak, Gorbeialdeko jendeari jarritakoak, Aramaioren ingurukoak...), batzuk hobeto eta besteak okerrago, baina denak giro ederrean.

Bertsoez eta abestiez gozatzeko aukera ezin hobea izateaz gain, elkar ezagutzeko ere baliatu genuen.

KIROLA, KANTAK ETA BERTSOAK!



Arabako TXAPELA Gorbeialdeara

Arabako Bertsolari Txapelketa izan da aurten Araban. Azken urteetako jendetsuena izan da eta Gorbeialdeak zerikusituzena izan du horretan. Hogeita hamar bertsolari hartu dute parte eta horietatik sei gure eskualdekiak izan dira. Gai jartzaile gehienak Gorbeialdeak jarri ditu, beste sei eta epaile lanetan beste lau. Baina hauen parte hartzea aurrerago aipatuko dugu.

Gure lurretan jokatu dira Txapelketako hiru saio. Lehenengoa Elosun izan zen eta azken kanporaketa zegoen jokoan. Hirurogeita hamar bat entzule gerturatu ziren eta afari giro ederrean itxi zen txapelketako lehen fasea.

Bigarren fasea Zigoitiako Kultur Etxean jokatu zen eta emaitza berdina izan zen, giro ona, saio jendetsua eta gutako bat finalera (Manex Agirre).

Hurrengo saioa Aramaion suertatu zen eta aretoa bete zen. Jendea bertso gosez zegoen eta bertsolariak saio polita osatu zuten.

Agurainen bukatu ziren finalaurrekoak eta hortik Gasteizko final handira.

Gasteizen jokatu arren, gure zaporea izan zuen finalak. Gure gai jartzailea, epaileak... Eta txapelduna GUREA!

Finala ospatzeko eguna izan zen eta MANEX AGIRREK eman zigun zer ospatua.

Animo txapeldun eta...

ZORIONAK DENOI!!



Gorbeialdeko bertso Abentura SARRIAN



Bertsoaren inguruan elkartu ginen Sarrian Gorbeialdea osotik etorritako umeekin. Asteburu bakarria izan zen, ekainak 10,11 eta 12, baina denbora ederki aprobetxatu genuen.

Iritsi bezain pronto, jolasen bidez aurkeztu eta elkar ezagutu genuen. Begiraleak Izar, Iñaki, Ander eta Uxue ziren. Lau neska-mutil jator.

Sarriako etxeak besoak zabal zabalik hartu gintuen, bere futbol zelai, zuhaitz, karpa eta abarrek. Hiru egun eta bi gau eder pasa genituen, batzuetan bertsoan, besteetan jolasten... Kanta eder bat ere egin genuen eta gau batean, bertsolariak etorri ziren. Ezin da gehiago eskatu. Konpleto.

ZATOZ HURRENGOAN !



Eskolarteko txapelketa

Batzuk mini txapelketa deituko diote, baina txapelketa handia izan da oso eskolartekoa. Kanporaketa bi burutu dira gure eskualdean, bat Izarran eta Elosun bestea. Finala ere, gurean izan zen, Legution.

Izarrako kanporaketan aretoa jendez bete zen. Izarrako eta Aramaioko gazteek ere parte hartu zuten eta Paula Amilburuk eta Josu Kanpok eskuratu zuten finalerako txartela. Elosun, Elyem Chej eta Ainhoa Komak gailendu ziren; seikotea Amaia Lasaga eta Maria Izagarekin batera osatu zuten.

Finalaren egun handia iritsi zen eta Legution bertso doinuak eramaten zituen haizeak. Dena prest!

Goizeko hamabietan hasi zen txikien (14 urtetik beherakoen) finala. Aretoan bertsozale, guraso, ume eta gazteak. Oholtzan hiru talde: Aramaio, Lautada eta Gasteiz. Lehia estua izan zen berriz, baina Aramaiok lortu zuen txapela etxean geratzea eta Peru Abarrategi eta Maialen Arrausik Euskal Herriko txapelketarako txartela.

Bazkarian behar bezala ospatu genuen. Menorkako glosak entzun eta herri kirol pixkat egin ostean, handien (14-18 urte) txanda heldu zen. Kantatzeko prest lehen aipatu dugun seikotea. Lan polita egin zuten guztiek, eta, nahiz eta txapela Gasteizera Joan (Amaia Lasaga), Paulak Euskal Herriko Txapelketarako lekua lortu zuen bigarren postua lortuta.



GOGORATU:

Peruk eta Paulak kantatu behar dute Euskal Herriko eskolarteko txapelketan Ekainaren 18an Agurainen.

ETOR ZAITEZTE ANIMATZERA!

Udan ere bertsoz blai

Uda datorrela eta bertsoa ere gori-gori dabil Gorbeialdean barrena, Ekainetik Trailera egongo da zer gozatua gure areto, taberna, kale eta plazetan.

Adi egon eta ez galdu zure inguruko bertso-lariak jarraitzeko. Menuaz gozatu, **ON EGIN!**



SAIOAK

BERTSO PILOTA

Ekainaren 17an, Murgiako frontoian 20:00etan

IZARRAKO BERTSO POTEOA

Ekainaren 18an, *Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes eta Zigor Enbeita*

ZUIA EUSKARAZ

Ekainaren 26an, 12:00etan kantu-kalejiraren barruan, Murgiako plazatik hasita: *Ruben Santxez, Asier Otamendi eta Uxue Ruiz de Arkaute.*

ZIGOITIA EUSKARAZ

Irailaren 11n. Mairulegorretako kobazuloan, *Gaizka Urtaran eta Manex Agirre*

Bertsoaren tartea



*Gorbeiape honetan
Bertsoz bizi gara
Horren seinale on bat
Badankagu, hara
Aurten gertatu dena
Harrotzekoa da:
Ez Gasteiz ingurura
Ta ez Lautadara
Txapela etorri da
Gure kuadrillara*

MANEX AGIRRE ARRIOLABENGOA

Arabako txapelduna 2011



Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

www.blogak.com/gorbeialdea-bertsotan

arababertsotan.wikispaces.com

www.bertsozale.com

www.bertsoa.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA